

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

IDAZKARI NAGUSIARI

GIZARTE HARRERAKO UDAL ZENTROAREN ERANSKINERAKO ARAUDIA PRESTATZEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau egiten dio Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Aitziber San Romani, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Legealdian zehar hainbat ekimen egin ditugu Gizarte Harrerako Udal Zentroaren (GHUZ) eranskinari buruz. GHUZen eranskin hori adingabeak ardurapean dituzten familiak hartzeko erabiltzen da. Elkarren gaineko oheak dituzten 3 logela ditu (2, 6 eta 8 ohe), sukalde-jantoki bat, 2 bainugela eta dutxa bat. Egonaldiak, salbuespenetan izan ezik, ezingo dira izan hiru gau baino luzeagoak.

Alabaina, azken urteko txostenak jasotakoaren arabera, gune horren erabilera intentsiboa egin da. Urteko 365 egunetan beteta egon da, eta aurreko urtean baino familia kopuru gutxiago hartu dira; horrek esan nahi du larrialdiko hiru egun horiek baino askoz ere erabilera luzeagoak egin direla.

laz planteatu genuen GHUZen eranskinaren funtzionamendurako araudia garatzeko premia, eta otsailean onetsi zen. Urte eta erdi geroago, ez daukagu araudi hori, eta funtsezkoa delakoan gaude, instalazio horri ematen zaion erabilera dela eta.

Denbora horretan guztian, adingabeak eskolatzeko ekimenak, egonaldietarako baldintza hobeak eta instalazio egokiagoak planteatu ditugu, besteak beste. Hala eta guztiz ere, gehienetan ez dira ekimen horiek onetsi.

Instalazio hori gehiago erabili dela ikusita, gizarte zerbitzuek baloratuta hirian denbora luzeagoan egotea pentsatzen duten familientzat baldintza hobeagoak dituzten bizitegi alternatibak bilatzeko premia planteatzen dugu. Hiriko larrialdi zerbitzuen laguntza duten bitartean, egonaldi duina eta baldintza egokiak eman behar zaizkie familiei, haien oinarrizko premiei erantzunez.



Bitartekoak jartzea ezinbestekoa da; bestela, ahultasun eta pobrezia egoerak betikotzen ditugu adingabe horien artean, lo egiteko toki egonkor bat ez izategatik soilik.

Horiek horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio GHUZen eranskinaren funtzionamendua erregulatuko duen araudi bat prestatzeko, hiru hilabeteko epean, 2016ko otsailean onetsi zen mozioko puntua betez.
2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio GHUZen eranskinerako ezarritako larrialdiko hiru egunetik gorako egonaldiak egin behar dituzten familientzako bizitegi alternatibak planteatzea ditzala.
3. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio zerbitzua hobetzeko lan egiten jarrai dezala, egoera ahulean dauden familiei kalitatezko bizitegia eta eskubideak emateko.

Sin. Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.